

EMAKUME PILOTARIAK: IZAERA, BIZIPEN ETA SENTIPENAK

Tesiaren egilea: Uxue Fernandez Lasa

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

Tesi-zuzendaria: Oidui Usabiaga eta Julen Castellano

Tesiaren laburpena:

Euskal pilota gizonezkoen eremu legez ikusi eta izendatu izan da askotan, baina badira euskal pilotan diharduten emakumeak ere. Ikerketa-lan honen helburua zera da, euskal pilotan dabiltzan Euskal Herriko emakumeen errealitatea ezagutzea.

Aisialdiko ikastaroetan zein federazioek antolaturiko lehiaketa ofizialetan diharduten nagusi mailako emakume pilotarien egungo errealitatera hurbiltzeko metodologia kualitatiboa erabili da, etnografia ardatz hartuta: behaketa parte-hartzailea Gipuzkoan abian den *Emakumea Pilotari* egitasmoko aisialdiko hiru taldetan; sakontzeko galdeketak Euskal Herri mailako hamaika pilotari federatu eta federatu ohirekin; gaiarekin loturiko dokumentuen azterketak eta eztabaida-taldea, testuingurua bertatik bertara ezagutu eta ikertuz.

Datuen analisisian zehar baturiko informaziotik hiru gako-gai nagusi azalarazi eta xehatu dira: emakume pilotarien identitateak eta horien sorrera nahiz garapena, harreman sareen eta komunitatearen indarra eta ardura zein eginbeharrek pilotariengan duten eragina, amatasuna ere aintzat hartuz.

Emakume pilotariekin eginiko azterlan honetan ondorioztatu da euskal pilotako eredia androzentrikoa dela, emakume pilotariekin identitate propioa eraikitzen dutela (identitate kolektibo partekatu bat, hain zuzen), pilotako jarduna askatasun-unea dela emakumeentzat («euren momentua»), eta emakume pilotariak ikusezinak direla, ez baitira bultzatu, babestu eta nabarmentzen.

